



OSTATU MAHAIA / MESA DE ALOJAMIENTO

2021eko irailaren 17a

GAI-ZERRENDA:

1. Sektorearen egungo egoera aztertzea.
2. Gai hauei buruzko informazioa:
 - a) Online Prestakuntzen Egutegia.
 - b) "Getxo Bihotzetik" proiektua.
 - c) "Familia-turismoko Programa" Produktu-Kluba.
 - d) Tokiko kontsumoan sentsibilizatzeko eta kontsumo hori sustatzeko kanpaina.
 - e) Getxo Bono 2021: kanpainari buruzko datuak.
 - f) Dinamizazio-laguntzak 2021
 - g) Covid-19 aparteko laguntzak
 - h) Kontrataziorako laguntzak 2021
 - i) Batuz sistema.
 - j) Udalerrian turismo-ostatu berriak ezartzea.
3. Ideia eta proposamen berriak.
4. Galderak, iradokizunak eta bestelakoak.
5. Hurrengo urratsak.

BERTARATUTAKOAK: (%30)

DEITUAK	Bertaratu direnak	Ez dira etorri	
		Justifikatuta	Justifikatu gabe
Ostatuen sektoreko arduraduna eta Hotel Neguri-ren kudeatzailea	Javier Angulo		X
Hotel Embarcadero	Bárbara Anasagasti		X
Hotel Los Tamarises	Karmele Abarrategui		X
Hotel Igeretxe	Nagore Saiz		X
Hotel Artaza	Joseba Oribe		X
Pensión Areeta	José Miguel Pérez	X	
Pensión El Abra		X	
Pensión Basagoiti	Mikel Valdés	X	
Barrika Surf Kanp	Nagore Nicolás	X	
Apartamentos Kai	Jasone Fernández		X



Getxo

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

Getxoko Udala – Ekonomia Sustatzeko Saila	Mirene Zabalgogezkoa		X	
	Sonia Urdiain	X		

EDUKIAK:

1. Bertaratu direnak agurtzea eta sektorearen gaur egungo egoera aztertzea.

Bilerara bertaratutakoak agurtu eta aurkeztu dira eta, ondoren, talde-
eztabaida txikia egin da, udako denboraldia nola igaro den eta sektorearen
ikuspegiei eta usteei buruz. Ildo horretatik, bertaratutakoek honako egoera
hau azaldu dute:

Nagore Nicolás andreak (Barrika Surf Kanp) esan digu lehen seihilekoan egoera
oso zaila izan dela pertsonen mugikortasunean egon diren murrizketen
ondorioz. Uztailean oso ondo funtzionatu dute, batez ere nesken/mutilen
taldeekin; beteta egon dira. Abuztuan, ordea, jarduerak behera egin du.
Hilabete horretan atzerritarrekin lan egin ohi dute, eta aurten ez dira iritsi.

Jose Miguel Pérez jaunak (Pensión Areeta & Pensión El Abra) berretsi egin du
lehen seihilekoan egoera negargarria izan zela. Uztailean eta abuztuan oso
ondo funtzionatu dute, eta, momentuz behintzat, irailean astegunetan lan-
eremuari (eraikuntza,...) lotutako pertsonen egonaldiakin betetzen ari dira.
Datu positibo moduan nabarmentzen du udako egonaldiak aurreko
ekitaldietakoak baino luzeagoak izan direla.

Ikuspuntu teknikitik, eta kontuan hartuta Turismo Bulegotik bere
instalazioetan artatutako bisitari-kopuruaren arabera lortutako datuak,
ondorioztatzen da oraindik ez gaudela 2019ko balioetan, baina nabarmen
lehengoratu dela bisitarien etorrera. Alde batetik, turista atzerritarra % 15 izan
da (2019an gutxi gorabehera % 30 izan zen); turista horiek banaka eta/edo
familian bidaiatu dute nagusiki; bestetik, nabarmen handitu da estatuko
bidaiari kopurua (gutzizkoaren % 71), eta horrek nabarmen lagundu du
turismoaren sektorea suspertzen eta lehengoratzen.

Beste erakunde batzuetatik (BFA eta/edo Eusko Jaurlaritza) helarazten diren
igurikizunei eta usteei dagokienez, nabarmendu behar da urritik aurrera aire-
konexioak berriro irekiko direla eta, beraz, laster nazioarteko turismoak gora
egingo duela.

2. Gai hauei buruzko informazioa:

a) ONLINE PRESTAKUNTZEN EGUTEGIA.

Bertaratutakoei jakinarazi zaie online eta doako prestakuntza berriak daudela,
sektorearen jarduera jaisten hasi den denboraldi honetan hobetzen eta hazten
jarraitzeko interesgarriak direnak (ikusi 4-5 diapositibak).



Getxo

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

Bereziki aipatzen da prestakuntza horiek guztiek **Etika Kodearen** programaren barruko prestakuntzatzat hartzen direla **eta, beraz, urtearen amaieran lortutako betekizunei buruzko emaitzen zati gisa puntuatzen direla**. Horregatik, programa honetan parte hartuz gero, egindako ikastaroen berri guri ematea oso garrantzitsua dela adierazi da.

Beste alde batetik, Astearte Komertzialen jarduera berreskuratzen da; jarduera hori salmentaren gai komertzialera berariaz bideratutako saioen zikloa da. Talde-hausnarketa eta banakako lana, aholkularitza-zerbitzuen laguntzarekin. Hurrengo saioen datak erakusten dira (ikusi 6. diapositiba).

Informazio gehiago: <https://www.getxo.eus/es/getxolan/noticias/544>

b) "GETXO BIHOTZETIK" PROIEKTUA.

Getxo Bihotzetik Proiektua komentatu da. Proiektu hau "GetxoEkinez!"-en onartutako ezohiko proiektuetako bat da eta mahai sektorialen eskaera batzuei erantzuteko sortu zen. Hauek dira proiektuaren helburu nagusiak:

- ✓ Gualdien kopurua handitzea.
- ✓ Bilbo-Bizkaia Handiko enpresei MICE zerbitzuak eta baliabideak ezagutaraztea.
- ✓ Estatuko eta nazioarteko kalitate-talde berriak Getxora ekartzea.

Horretarako lantalde bat sortu zen; lantalde horretan zerbitzuen hornitzaileak eta ekimenen garapenez arduratzen direnak sektorea bera dira, Udalaren laguntzarekin. Talde sustatzailea Mice Design enpresako Virginia Pérez eta Go Basquing-eko Iñigo García Valenzuela dira.

Hona hemen jarduera-ildo nagusiak:

1.- *Nola proiektatuko garen eta zer erakarri nahi dugun definitzea*, Getxo markaren balioak identifikatuz eta gure produktuak eta zerbitzuak kokatzen lagunduko diguten "istorioak" sortuz. Modu parte-hartzailean eta mahai sektorialekin eta Getxoko enpresa-sare osoarekin lan eginez.

2.- *Beren negozio-eredua eta/edo zerbitzuak berrikusten interesa duten enpresei laguntzea*, hobetzeko arloak definituz eta produktu eta esperientzia berriak zehaztuz, eta/edo lehendik daudenak MICE merkatuan saltzeko egokituz.

3.- *Online komunikazio- eta merkaturatze-kanpaina*, "istorio", zerbitzu eta/edo produktu horiek zabaltzeko.



Getxo

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

4.- Alderantzizko merkaturatze-jardunaldiak antolatzea: Fam-Trip (ohitzeko bidaiak) presentzialak (5) eta birtualak (10), eskaintza erosi eta/edo merkaturatu dezaketen enpresa eta eragile interesgarriei eskaintzaren berri emateko.

Adibide gisa; goiz oso baten udalerrian zehar zenbait jarduera antolatzen dira horientzat. Hori guztia enpresa horiek esperientziak zuzenean bizi ditzaten eta eskaintza horren atzean dauden enpresak ezagutu ditzaten egiten da, loturak ezarri ahal izateko. Desberdintzea da gakoa, jarduera edo istorio bakar eta desberdinak eskaini ahal izatea.

Orain arte, maiatzetik ekainera bitartean, egindako ekintzak eta irailetik abendura bitartean egingo direnak azaltzen dira (ikusitako xehetasunak 8-9-10-11 diapositibetan), eta adibide gisa honako bideo hau ematen da:

<https://drive.google.com/file/d/1oOYHWL22F94Yk3tN6gLOmSb92lagYcr3/view?usp=sharing>

Proiektu honetan enpresa guztiek parte har dezakete eta bat egin dezakete helbide elektronikoa honetara eskaera bidalita: visitgetxo@getxo.eus

c) "FAMILIA-TURISMOKO PROGRAMA" PRODUKTU-KLUBA

Udal teknikariak azaldu du duela 3 urte, BasqueTour-en eskutik, "Familia-Turismoko Programa" motako Produktu-Klub bat kaleratu zela, "Surfing" edo "Euskadi Gastronomika" Produktu-Klubek bezala funtzionatzen duena.

Egunero proiektuaren asmoa familien beharrekin bat datozen enpresak identifikatzea da, denak batera eskaini ahal izateko. Garrantzitsua da zehaztea jarduera horiek ez direla "haurrentzat" izan behar, baizik eta "familian" gozatu ahal izateko.

Proiektuan parte har dezakeen enpresa motari buruzko xehetasunak ematen dira, bai eta proiektuan parte hartzeko aztertzen diren alderdiei buruzkoak ere (hautazko betekizun batzuk eta nahitaez bete beharreko beste batzuk daude), bai eta zer onura ematen dituen ere (ikusitako xehetasunak 13-14 diapositibetan).

Izena emateko epea datorren irailaren 30ean amaituko da (urriaren 10era arte luzatuko da); enpresentzat erabat da doakoa da eta honako mezu elektronikoa hauetan erantzun zaie:

turismofamiliar@getxo.eus

turismofamiliarra@getxo.eus

Asmoa, interesa duten enpresak inskribatu ondoren, urritik otsailera bitartean enprekin lanean hastea da, 2022ko Aste Santurako prest egon ahal izateko.



Getxo

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

Enpresek banakako aholkularitza jasoko dute, diagnostiko bat egingo zaie Klubaren eskakizunen betetze-mailaren berri izan dezaten, hobekuntza-plan pertsonalizatua emango zaie beharrezkoak diren hobekuntzak ezartzeko aukera izan dezaten, eta laguntza emango zaie behar dutenerako.

Informazio gehiago: [Planes con niños en Euskadi - Turismo familiar en el País Vasco](#)

d) TOKIKO KONTSUMOAN SENTSIBILIZATZEKO ETA KONTSUMO HORI SUSTATZEKO KANPAINA.

Gogorarazi da "Garrantzitsuena, beti eskura" leloa duen kanpaina hori Enpresen Kontsulta Foroak eskatuta sortu dela, eta helburu nagusia udalerriko establezimenduen eta zerbitzuen kontsumoa sustatzea dela. Kanpaina honek abiarazteko edo indartzeko bi txanda zituen: bata maiatzean-ekainean eta, hurrengoa, urrian-azaroan. Beraz, urritik aurrera berriz ere publizitate-ekuskarriak helaraziko zaizkiela jakinarazten da, partekatu ahal izateko.

Alde horretatik, bildutako datuen emaitzak erakusten zaizkie bertaratutakoei (ikusi xehetasunak 15. diapositiban). Gainera, intzidentzia eskualde mailakoa izan da: Getxo, Leioa, Erandio, Sopela, Berango, Plentzia, Barrika, Gorniz eta Urduliz.

e) GETXO BONO 2021: KANPAINARI BURUZKO DATUAK.

Mahaiari 2021/09/06an jasotako datuen berri ematen zaio (ikusi 16-17-18 diapositibak). Sektoreei dagokienez, Ostatuan trukaturako bonu kopuru urria aipatu da. Bonuak mota horretako establezimenduetan trukatu daitezkeen lehen edizioa da; sektoreko ordezkariak merkaturatu aurretik planteatu zuen gai hau eta positiboki baloratu zen.

Datorren urteari begira kanpaina berriz egiten bada, sektoreari jakinaraziko zaio.

f) DINAMIZAZIO-LAGUNTZAK 2021

Hala proiektuak nola laguntza-lerro hauen emakiden emaitzako esleipendunak azaltzen dira (ikus xehetasunak 19-20-21 diapositibetan). Sektore honentzat bereziki interesgarria da 3. lerroa, eta datorren urteari begira horiek eskatzera animatzeko aukera baliatzen da.



g) COVID-19 LAGUNTZA BEREZIAK

Covid-19aren arloko Aparteko Laguntzei dagokienez, lehen atxikipen-alditik ateratako datuak (05/29 - 06/14) honako hauek izan ziren:

- **257 eskaera:** 248 eman ziren, 324.680 € guztira; 6 ukatu ziren, eta 3 enpresak atzera egin zuten.
- Enpresa onuradunen profila:
 - 173 enpresak laguntza eskatu zuten **sektorea ixteagatik**.
 - 75 enpresak laguntza eskatu zuten **udalerrriaren perimetroa ixteagatik**.
- Enpresa horien **sektorearen** arabera:
 - Ostalaritza: 173 (% 69,8)
 - Zerbitzu turistikoen enpresak: 27 (% 10,9)
 - **Ostatuak: 5 (% 2)**
 - Taxiak: 43 (% 17,3)
- Enpresa horien **forma juridikoaren** arabera:
 - Pertsona fisikoak: 144 (% 58,1)
 - Ondasun-erkidegoak eta nortasun juridikorik gabeko bestelako taldeak: 29 (% 11,7)
 - Pertsona juridikoak: 75 (% 30,2)

Bigarren aldian (05/11 – 06/30), **hirugarrenean eta gaur egungoan bezala (09/01 – 09/15)**, ez da eskabiderik jaso. Hala ere laguntza hau urte amaierara arte egongo da indarrean, gerta daitezkeen inguruabarrengatik.

Informazio-taula:

<https://www.getxo.eus/DocsPublic/getxolan/AYUDAS COVID 2021/Web Fich a Resumen Ayudas Covid 2021 Cast.pdf>

h) KONTRATAZIORAKO LAGUNTZAK 2021

Era berean, Mahaiari jakinarazi zaio Lanbidek urtero ateratzen dituela laguntza horiek, interesa duten udalei bi jarduera-ildotara bideratuko den dirua emateko:

- Udaletan laguntzarako langileak kontratatzea.
- Enpresei zuzendutako deialdi publikoa egitea, enpresa horien kontratuak diruz lagundu ahal izateko. Aurtengoak **2021eko uztailaren 1etik abenduaren 31ra arte HASITAKO** kontratuak estaliko ditu.



Getxo

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

Gaur egun, Udala Lanbideren ebazpenaren zain dago. Edonola ere, 2020ko laguntzaren baldintzen laburpen-aula ematen da, 2021eko deialdian errepikatuko dena:

[https://www.getxo.eus/DocsPublic/Ficha Resumen Ayudas Contratacion 20 20 Cast.pdf](https://www.getxo.eus/DocsPublic/Ficha_Resumen_Ayudas_Contratacion_20_20_Cast.pdf)

i) BATUZ SISTEMA.

Berrikuntza gisa, jakinarazi da Foru Ogasunak **2024ko urtarrilaren 1era** arte luzatu duela nahitaez ezarri beharreko data. Hala ere, egokitzapena data hori baino lehen egiten duten enpresa guztiek Foru Ogasunak oraindik zehaztu gabe dituen kenkari fiskalak jasoko dituzte.

Gainera, Enpresen Kontsulta Foroan landutako eta aztertutako eskaeretako bat, atzo politikariei Kontraste Mahaian helarazi zitzaiena, enpresei zuzendutako laguntza-lerro bat abiarazteko aukera zen, trantsizio horrek sektoreei ekarriko dizkien inbertsio guztiei aurre egin ahal izateko balioko lukeena. Udal teknikariak horren inguruan hartuko den erabakiaren zain daude.

Egokitzapen horretan lanean jarraitzeko, online informazio-jardunaldiak eskaintzen jarraituko da, bai eta ondoren banakako aholkularitza emateko aukera ere. Hurrengo saioak honako hauek izango dira:

- 09/29; 13.30etatik 14.30etara.
- 11/09; de 13.30etatik 14:30etara.

Inskripzioak helbide honetan jasoko dira: www.getxo.eus (beranduen jardunaldiaren bezperan).

Batuz sistemari buruzko informazio gehiago: <https://www.batuz.eus/es>

- Software homologatuen zerrenda:
<https://www.batuz.eus/es/registro-de-software>
- Borondatez ezartzeagatik dauden hobarien iragarpena:
<https://urlchill.com/Zf9Je>.

j) UDALERRIAN TURISMO-OSTATU BERRIAK EZARTZEA.

Udalerrian ostatua eskaintzeko establezimendu berri bat irekiko dela jakinarazi zaie bertaratutakoei: apartamentu turistikoak. ([Apartamentos Kai - Kai Apartamentuak](#))

8 apartamentu dira, Kalamua kalean, Erromon; HIRUGARREN kategoria (GILTZA 1), eta 29 plaza.



Getxo

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

3. Ideia eta proposamen berriak.

Iragartzen da une honetan Udala eta administrazio publikoak 2022rako aurrekontuak prestatzen ari direla, urte hasieran itxi ohi direnak. Astelehenean, hilaren 13an, Kontraste Politikorako Mahaian urte hasierako mahaietatik atera ziren sektoreen eskaera eta behar askoren berri eman zen.

Hala ere, sektoreko enpresak animatzen dira sektorearen egoera orokorra hobetzeko landu beharreko proposamen edo gairen bat dagoen baloratzera, horiek guztiak helarazteko unea baita. Ondore horretarako helbide elektroniko hau ematen da:

alojamiento@getxo.eus

Jose Miguel Perez jaunak sustapen-kanpaina bat egitea proposatu du, "deskonexioa" eta "desblokeoa"... saltzen lagunduko duena. Biztanleriaren zati handia maila mentalean blokeatuta dagoela adierazten du; deseskalatze-prozesuan izandako etengabeko aldaketek eragina izan dute blokeo honetan. Esaten du blokeo hori *haustera* bideratutako egonaldiaz gozatzeko leku gisa posizioa gintezkeela. Eslogan posible moduan honako hauek aipatzen ditu: "Deseskalatu Getxon" eta "Deseskalatu eta GETXO gozatu".

4. Galderak, iradokizunak eta bestelakoak.

Mahaiari jakinarazi zaio gaur egun ez duela ordezkaririk, Javier Angulo jaunak bere baja jakinarazi zuelako –abuztura arte izan zen ordezkaririk–.

Garrantzitsua da postu hutsa betetzea, sektore hau ordezkaririk gabe geratzen baita:

- Ostatuaren tokiko sektore osoarentzat.
- sektoreak ordezkaritza izateko Enpresen Aholku Foroan: sektoreetako ordezkariek mahai sektorialetatik helarazitako proposamenei lehentasuna emateko Foroa.
- sektoreak Kontraste Politikorako Mahaian ordezkaritza izateko: foro horretan sektoreetako ordezkariek euren beharrak eta proposamenak azaltzen dizkiete udal-ordezkaritza duten talde politikoetako ordezkariei.

Bertaratutakoek adierazi digute gaur egun ez dutela euren burua postu huts hori betetzen ikusten.

Interesdunek euren hautagaitzak aurkez ditzakete, ahal dela Kontsulta Foroaren hurrengo bilera (urriaren 5ean) baino lehen, getxolan@getxo.eus helbidera idatziz.



5. Hurrengo urratsak:

- Urriak 5: Enpresen Kontsulta Foroa. Bertan sektoreetako ordezkariak lehentasuna emango diete mahai sektorialetatik jasotzen diren proposamenei. Gaur egun Ostatu Mahaiak ez du ordezkaturiko duen hautagairik eta, beraz, bere proposamenek ez dute defendaturiko dituen ordezkariak.

OSTATU MAHAIAREN ERABAKIAK (2021/09/17):

ERABAKIAK/EKINTZAK	ARDURADUNA	DATA
1. Bileraren aktaren zirriborroa bidaltzea.	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
2. Enpresen Kontsulta Foroan ordezkatzeko hautagai berria proposatzea.	Sektoreko enpresak	Ahal bada urriaren 5a baino lehen
3. Proposatutako programa eta ekimenei atxikitzea eta/edo horietan inskribatzea baloratzea.	Sektoreko enpresak	Bileratik aurrera
4. Sektorearen egoera hobetzeko eta/edo sektorearen posizionamendu hobea lortzeko proposamenak igortzea, 2022an gauzatzeko.	Sektoreko enpresak	Irailaren 28a baino lehen
5. Turismoa sustatzeko kanpaina bat sortzea GETXO helmuga gisa kokatzeko, pandemiaren ondorioz herritarren blokeoa hausteko egonaldiaz gozatzeko.	Zerbitzuko teknikariak	2022